



SAIZAR
Sagardoa • Sidra Natural

www.sidrassaizar.com



Igartubeiti baserri museoa inguru eder batean dago, Ezkio-Itsason. ANE GARMENDIA / GOIERRIKO HITZA

EUSKAL BASERRIAREN HISTORIA EZAGUTU IGARTUBEITI MUSEOAN

Ezkio-Itsason dago Igartubeiti baserri museoa, eta euskal baserriaren historia ezagutzeko aukera ematen du. XVI. mendeko dolare bat dauka.

Ezkio-Itsasoko (Gipuzkoa) Igartubeiti baserria XVI. mende erdialdean eraiki zuten, eta euskal baserriaren Urrezko Aroaren adibide paregabea da. Igartubeiti baserria XVII. mende hasieran iritsi zen bere aldirik onenera, bizimodu eta lan berriei egokitzeko asmoz zabaltu eta aldatu egin zutenetik aurrera. Jatorrizko egurrezko egitura bikain mantendu izanak eta barruan duen sagardo dolare handiak Euskal Herriko baserriarik interesgarrietarikoa bihurtua dute Igartubeiti. Dolarea ere XVI. mendekoa da.

1990. urtera arte, Mendiguren familiaren esku egon zen baserria. 1992an, Gipuzkoako Foru Aldundiak erosi zuen, gal ez zedin, eta, 1993tik 2001era, zaharberritze lanetan aritu ziren, museo bilakatzeko asmoz.

Igartubeitik balio kultural eta arkitektoniko izugarria dauka. Eraikinen barnealdea zein aurrealdea haritz zurezkoak ditu. Baserria zaharberritu zutenean, ahalik eta jatorrizko pieza gehien

kontserbatu nahi izan zituzten, eta zutabeak, zoruak eta habeak jatorrizkoak dira. Jatorrizkoa da baserriaren ganbararen aurki daitekeen dolarea ere: museoko elementurik deigarrienetako bat. Dolareak baldintzatzen ditu eraikinen dimentsioak, hamar metroko zutabe batek gidatzen baitu.

BISITAK ETA JARDUERAK

Halaber, Igartubeiti baserri museoa dagoen interpretazio zentroak mila urtetik gorako euskal baserriaren historia birsortzen du. Horrela, Igartubeitin bizi izandako familietako senideen eta bizilagunen ahotsen bidez, antzinako baserrien hazkundera eta bilakaera, biztanleen bizimodu eta lanak, elkarren arteko harremanak, sinesmenak, ekoizpena, elikadura, dibertsioak eta sufrimenduak ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Interpretazio Zentroan Igartubeitira egiten diren bisitak kudeatu eta baserriaren historiaren inguruko jarduerak antolatzen dira. Aukera dago bisitak taldeka familiarekin edo lagunekin egiteko, bai eta nork bere kontura ere.

Urriaren 31ra arte, museoa asteartetik larunbatera irekita egongo da, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara. Igandetan, 10:00etatik 14:00etara egongo da zabalik. Bisita gidatuak egin nahi izanez gero, erreserba aurretik egitea gomendatzen da, 943-72 51 07 edo 943-72 29 78 telefono zenbakira deituta edo mezu bat idatzita gartubeiti@gipuzkoa.eus helbide elektronikora.

Segurtasun neurri bereziak jarri dituzte martxan, koronabirusaren eraginez. Museoa eredu kiera erdira murriztu dute, eta bisitarien artean segurtasun tartea mantendu behar da. Horrez gain, museoa barruan ibilbide finko bat dago bisitariarentzat, eta informazio liburuxkak, bertiz, QR kodeak eskaneatuz daude eskuragarri. Sarreraren eta aretoetan gel hidroalkoholikoa jarri dituzte. Maskara erabiltzea derrigorrezkoa da.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.igartubeitibaserria.eus